



LEHENDAKARITZA

Koordinazio eta Proiektu Estrategikoen
Idazkaritza Nagusia
Araubide Juridikoaren Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de Coordinación y
Proyectos Estratégicos
Dirección de Régimen Jurídico

**Ebazpena, Araubide Juridikoaren
Zuzendariarena, Euskal Diasporaren
lege aurreproiektuaren aurretiazko
kontsulta publikoa egiteko dena**

**Resolución del Director de Régimen
Jurídico por la que se somete a
consulta pública previa el
anteproyecto de ley de la Diáspora
Vasca**

Lehendakaritzak Euskal Diasporaren lege
aurreproiektua egiteko prozedura hastea
aurreikusi du.

Lehendakaritza tiene previsto iniciar el
procedimiento para la elaboración del
anteproyecto de ley de la Diáspora
Vasca.

Xedapen Orokorrak egiteko prozedura
ezartzen duen ekainaren 30eko 6/2022
Legearen 11.artikuluaren xedatutakoaren
arabera, xedapen orokorraren
izapidetzea sustatzen duen organoak edo
zuzendaritza-zentroak, testu juridiko
arauemailearen proposamena idatzi
baino lehen, kontsulta publikoaren bidez
bilduko du gizarteak duen iritzia.

De conformidad con lo dispuesto por el
artículo 11 de la Ley 6/2022, del 30 de
junio, del Procedimiento de Elaboración
de las Disposiciones de Carácter
General, el órgano o centro directivo
promotor de la tramitación de la
disposición de carácter general recabará
en consulta pública previa y, con carácter
previo a la redacción de la propuesta de
texto jurídico normativo, la opinión de la
sociedad.

Aldez aurretiko kontsultaren izapidearen
iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko
Administrazio Publikoaren egoitza
elektronikoko iragarki-taulan jarrita
egingo da.

El trámite de consulta pública previa se
realizará mediante el anuncio en el tablón
de anuncios de la sede de la
Administración General de la Comunidad
Autónoma de Euskadi.

Aldez aurretiko kontsultaren iragarkiak
herritarrei gonbidapena egingo die
ondorengo alderdiei buru iritzia eman
dezaten:

El anuncio de consulta pública previa
invitará a la ciudadanía a que se
pronuncie acerca de los siguientes
aspectos:

- a) Araua onestearen premia eta egokitasuna.
- b) Arauaren xedeak.
- c) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

- a) La necesidad y oportunidad de aprobar la norma.
- b) Los objetivos de la norma.
- c) Los problemas que pretende solucionar.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.





Aurrekoa betez, ebazpen honen bidez herritarrei dei egin zaie ebazpen honen eranskinean jasotako alderdiei buruzko iritzia eman dezaten **15 eguneko epean**, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

En cumplimiento de lo anterior, a través de esta resolución se invita a la ciudadanía a que, **durante el plazo de 15 días**, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pronuncie acerca de la información contenida en el anexo de esta resolución.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan,

Abel Martínez de Aguilera Quintana,

Araubide Juridikoaren zuzendaria

ERANSKINA

Euskal Diasporaren lege-aurreproiektua. Aldez aurretiko kontsulta herritarrei

1.- Araua onestearen premia eta egokitasuna.

30 urte pasa dira Euskal Autonomia Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legea onartu zenetik. Lege horren babesean helburu asko erdietsi badira ere, hala nola Euskal Etxeen arteko kohesioa sendotzea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Euskal Etxeen arteko lotura indartzea, Euskal Herriaren errealitatea mundu mailan proiektatzea, edota kanpoan dauden euskal herritarren ondorengoei babesa eta sostengua ematea, gaur egungo araudia zaharkituta geratu da eta garai berriekin bat datorren Lege berria onartu behar da.

2.- Arauaren xedeak.

Lege aurreproiektu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen eta, orohar, euskal gizartearen eta Euskal Diasporaren arteko harremanak sustatu, koordinatu eta indartzea, bai eta harreman horiek errazteko marko estrategiko eta juridikoa zehaztea.

3.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Euskal Autonomia Elkarteaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legea onartu zenetik mundua nabarmen aldatu da.

Alde batetik, mundu globalizatuak migrazio tradizionaletik harago doazen migrazio-modu berriak ekarri ditu eta, bestetik, teknologia berriek munduko harreman-sareak erabat eraldatu dituzte. Era berean, Euskal Etxeen bitartekotzaz gain, euskal herritarrek eta Diasporakoak kanal eta modu berriak dituzte harremanetan jartzeko eta euskal sustraiei eusteko.

Ildo horretatik, lege-aurreproiektuak arreta berezia eskainiko die atzerrian bizi eta lan egiten duten gazteei, Euskadiren marka munduan zabaltzeko aktibo eta solaskide garrantzitsua baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat. Horregatik, gazte horiekiko harremanetan sakonduko da eta, hala eskatzen dutenean, haien itzulera erraztuko da.

Gainera, urriaren 19ko Memoria Demokratikoaren 20/2022 Legea indarrean jarri denetik, erbesteratutako euskal herritarren hainbat ondorengok Euskal Autonomia Erkidegora itzultzeko borondatea adierazi dute. Legeak kolektibo horri arreta berezia eskainiko dio.

Era berean, Euskal Etxeak izan dira, orain arte, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren solaskide nagusiak. Lege berriak, ordea, ateak irekitzen dizkio herritarrekin zuzenean zein beste erakunde eta elkarte batzuekiko elkarriketari,

komunitate birtualeei barne. Egitura formal eta informal horiek guztiak kanpoko euskal komunitatea izeneko sarea osatzen dute.

Aipatutako aldaketa guztiei erantzuna emateko asmoz, lege berriak hainbat berrikuntza proposatuko ditu, besteak beste: kanpoko euskal komunitateen erregistro berrian, Euskal Etxeez gain, beste elkarte batzuk inskribatzeko aukera; kanpoan bizi diren euskal herritarren erregistroa sortzea; itzuli nahi duten euskal herritarren arretarako bulegoa sortzea; Euskal Diasporaren artxibo historikoa sortzea, diasporak euskal ondareari egiten dion ekarpena gordetzeko eta zabaltzeko, eta migrazioen interpretazio-zentroa eratzea, euskaldunen migrazioaren ezagutza, ikerketan eta zabalkundean sakontzeko.

4.- Bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Azaldutako guztiagatik, Euskal Diasporaren Lege Aurreproiektua bultzatzea beharrezkotzat jotzen da eta ez da beste aukera arautzailerik aztertu.

ANEXO

Anteproyecto de Ley de la Diáspora Vasca. Consulta previa a la ciudadanía.

1.- Necesidad y oportunidad de aprobar la norma.

Han transcurrido 30 años desde la aprobación de la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Si bien se han conseguido muchos objetivos al amparo de dicha Ley, tales como el fortalecimiento de la cohesión entre las Euskal Etxeak y del vínculo entre la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Euskal Etxeak, la proyección a nivel mundial de la realidad de Euskal Herria, la ayuda y la protección a las personas descendientes de ciudadanas y ciudadanos vascos en el exterior, la normativa actual ha quedado obsoleta y es necesario aprobar una nueva Ley acorde a los nuevos tiempos.

2.- Objetivos de la norma.

Esta ley tiene como objeto la promoción, coordinación y fortalecimiento de las relaciones de las instituciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de la sociedad vasca en general con la Diáspora Vasca, así como el establecimiento del marco jurídico y estratégico que favorezca dichas relaciones.

3.- Los problemas que pretende solucionar la iniciativa.

Desde la aprobación de la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco el mundo ha cambiado sustancialmente.

Por un lado, el mundo globalizado ha traído consigo nuevas formas de migración que van más allá de las migraciones tradicionales y, por otro lado, las nuevas tecnologías han transformado completamente las redes relacionales mundiales. Asimismo, además de la mediación de los Centros Vascos, la ciudadanía vasca y la de la Diáspora tienen nuevos canales y nuevas formas de relacionarse y mantener sus raíces vascas.

En este sentido, el anteproyecto de ley prestará especial atención a la juventud vasca que reside y trabaja en el exterior, como activo e interlocutores clave para la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la difusión de la marca de Euskadi en el mundo. Por ello, se profundizará en las relaciones con estos jóvenes y se facilitará su retorno cuando así lo soliciten.

Además, con la entrada en vigor de la Ley 20/2022, de 19 de octubre, de Memoria Democrática, algunas personas descendientes de ciudadanas y ciudadanos vascos exiliados han manifestado su intención de regresar a la Comunidad Autónoma del País Vasco. Por ello, la ley también prestará especial atención a este colectivo.

Asimismo, los Centros Vascos-Euskal Etxeak han sido, hasta ahora, los interlocutores preferentes para la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Sin embargo, la nueva ley abrirá también sus puertas a la interlocución directa con la ciudadanía y con otras entidades y asociaciones, incluidas las comunidades virtuales. Todas estas estructuras formales e informales integrarán la red denominada comunidades vascas en el exterior.

Con el fin de dar respuesta a todos los cambios mencionados, la nueva ley propondrá, entre otras novedades, la posibilidad de inscribir otras asociaciones en el nuevo registro de comunidades vascas en el exterior, además de las Euskal Etxeak; la creación de un registro de ciudadanas vascas y ciudadanos vascos residentes en el exterior; la creación de una oficina de atención a las ciudadanas y ciudadanos vascos que deseen retornar a la Comunidad Autónoma del País Vasco; la creación de un archivo histórico de la Diáspora Vasca para preservar y difundir la contribución de la Diáspora al patrimonio vasco, y la creación de un centro de interpretación de las migraciones para profundizar en el conocimiento, investigación y difusión de la migración de las vascas y vascos.

4.- Otras posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Por todo lo expuesto, se considera necesario impulsar el anteproyecto de Ley de la Diáspora Vasca y no se contempla ninguna otra alternativa regulatoria.